

AURKEZPENA

*Su andija egiteko, egur lodija ixetuteko,
lenengo abarrari ezarten yako sua,
ta onegaz ari gero.*

Zeinek esango zuen barraskiloak zazpi urteko bidea egingo zuela 14 aleren azaletan zehar?

Poliki ibili da, berandu batzuetan, baina beti bete du bidea egiteko hitza. Hemen da berriz, beste behin, hizkuntza, ezagutza, komunikazio eta ekintzari buruzko diziplinarteko ikerketa euskaraz ekartzen duen aldizkariaren azken alea.

Oraingo honetan, Pierre Bourdieren «Iritzi publikoa ez da existitzen» lana itzuli digu Jesus Mari Larrazabalek, alea irekitzeko; artikulu kritikoa, gogotan eta ahotan horrenbeste darabilten kontzeptuarekin. Begiratu zabal eta zehatza emateko, pentsamenduaren psikologia hautatu du Pello Huizik, irakaskuntza ofiziala utzita, ikertzeko eta irakasteko gogoari eusten dion adierazgarri.

Artikuluen atalean, bi lan bildu ditugu, bina egilek sinatutakoak, biak ala biak. Lehen, filosofiaren alorrekoa, Esteban Antxustegi eta Cristina Lasaren «Jean-Jacques Rousseau: bihotzaren mintzoa». Bigarrena, euskararen semantika eta pragmatikakoa, Larraitx Zubeldia eta Kepa Kortaren «'Omen'ek esan nahi omen duenaz».

Liburu kritikak, berriz, hiru dira: zientziaren historiakoa, hizkuntzaren filosofiakoa, eta filosofiaren historiakoa, hurrenez hurren. Aurkezpen laburren ondotik, hizkuntzalari handi baten heriotz oharra dakargu Mixel Aurnague-ren eskutik: Carlota Smithena, hain zuzen. Ohi bezala, kongresu, jardunaldi eta ikastaroen iragarpenarekin ixten da VII-2 alea. Eta alearekin batera, bukatu egingo da barraskiloaren bidea GOGOAn, eta Kepa Kortarena GOGOaren zuzendaritzan eta ILCLlrenean.

GOGOaren etorreraren berri izan orduko, batek baino gehiagok azaldu zuen proiektuari buruzko (aurre)iritzi ezkorra: euskarak ez omen zuen horrelako aldizkari baterako irakurle nahiz idazle masa kritiko nahikorik; edo, horrekin kontraesanean, hartuta omen zegoen ordurako aldizkari berriaren

irakurle/egileen espazioa; edo, areago, euskara hutsezko ikerketa aldizkariak, diziplinak diziplina, esparruak esparru, ez omen dute baliorik, ez zientziaren ikuspuntutik, ez euskararenetik. Esker ona adierazi nahi diet horiei guztiei, GOGOaren urteotako lanak gezurtatzeko moduko baiezenak egiteagatik. Baina, batez ere, honako beste hauek eskertu nahi ditut:

- Jesus Mari Larrazabal eta Xabier Arrazola, GOGOaren hazia jartzen parte hartzeagatik.
- Juanba Berasategi, barraskiloa sortu, eta (batzuetan, Zuriñe Sistiagaren laguntzarekin) azal guztiak, eta argitaratu ez den bakarren bat ere, prestatzeagatik.
- Juan Igartua, EHUko Argitalpen Zerbitzuko zuzendari gisa GOGOaren sorrerari emandako bultzadagatik; eta ondorengo zuzendari Javier Duoandikoetxea, horri eusteagatik.
- EHUko Argitalpen Zerbitzuko Vega Fernandez de Bobadilla, Roberto Lopez eta Laura Alvarez, aiez ale, edizio lana egiteagatik.
- Andolin Eguzkitza zena, lehen aletik beretik GOGO horrenbeste laudatzeagatik.
- Isabel Gomez txurruka zena, horrenbeste lan egiteagatik, Aurkezpen Laburren atalean bereziki.
- Sagrario Yarnoz, Joana Garmendia eta Larraitx Zubeldia, idazkari eta idazkari tekniko gisa egindako lanagatik.
- GOGOaren Erredakzio eta Aholku Batzordeetan parte hartu dutenak eta, horietan parte hartu gabe ere, ebaluazio lanak egin dituztenak.
- Bidegabe itxitako *Egunkaria*, eta *Berria*, publizitate trukeagatik.
- ILCLI, aldizkaria prestatzeko baliabide guzti-guztiak eskaintzeagatik, horretarako erakunde laguntzarik batere jaso gabe.

Eskerrak, beraz, guztioi, eta agur, barraskiloaren eta bion izenean.

Zuzendariak

Donostian, 2007ko urriaren 27an

Oharra: 2008tik aurrera, Logikako katedradun Jesus Mari Larrazabal izango da GOGOaren zuzendaria.